

Temas

Actividad física, Salud comunitaria.

Descripción

Hitz gutxitan esanda, Eskola bidea haurrak eskolara beraien kabuz, seguru eta oinez joatea ahalbidetuko duen bideen sarea da, baina ez hori bakarrik, modu parte hartzailean haurren eta hezkuntza komunitatearen beharrak asetzeko garatzen ari garen proiektua ere bada.

Aurreko

ikasturtean, haur eta familien mugikortasun aukera eta ohituren gaineko diagnostiko bat egin genuen, ondoren, bide jakin batzuk diseinatu ziren, eta azkenik, froga pilotua burutu zen. Ikasturte honetan berriz, Eskola Bidearen dinamika egonkortzeko ahaleaginean ari gara.

Orain

dela ez asko haurrak eskolara beraien kabuz joatea ohikoa bazen ere, badirudi azken urteetan joera hau aldatu egin dela eta gero eta haur gutxiago dira etxetik eskolarako bidea modu autonomoan egiten dutenak. Errealitate honek, zenbait gabezia eragiten dizkie haurrei, esaterako, ingurunea ezagutzeko eta modu autonomoan konfiantzaz mugitzeko zailtasunak, espazio publikoa elkarbanatzeko eragozpenak, sedentarisismoa, haurren arteko kaleko harremanak mugatuak izatea edo motordun ibilgailuekiko dependentsia eta hauek suposatuz dezaizketen arriskua.

Egoera

honen aurrean, Soraluzeko "Herrixak Hezi" Hezkuntza Proiektuaren baitan, "Eskola Bidea" egitasmoaren bitartez haurren ahalduz eta autonomiaren garapenean eragin nahi da, eskolara beraien kabuz, oinez eta bide seguruetatik joatea sustatuz eta ahalbidetuz. Hezkuntza Proiektuari dagokionez, esan beharra dago, prozesu parte hartzaile batetik jaiotako egitasmoa dela, zeinak elkarrekintzan gara daitezkeen proiektu ezberdinak biltzen dituen, tartean, aipatutako eskola bidea, bereziki haurren eta beraien familien behar konkretuak asetzeko proposatua izan zena.

Gainera, haurrentzat ez ezik, kalea oinezko

ororentzat berreskuratzea ere bilatzen da egitasmo honen bidez, izan ere, herriko gune nagusiak autoentzako gune bilakatu direla esan daiteke eta haurrak kasu askotan autoz heltzen dira ikastetxera, inguruarekin izan dezaketen harremana murriztuz. Eskola bidearen bidez, sozializazio eta harreman eredu berriak sustatuko dira, komunitate izaera garatuz eta herriko merkataria, familia, eragile eta bestelakoak proiektuan inplikatuz. Era berean, herritar ororengan eragina duten zenbait aspektu jorratuko dira, hala nola, irisgarritasuna, mugikortasuna, ohitura osasuntsuak, etab.

Proiektuaren oinarrian ezinbestekoa

da haurrak egotea, eta nola ez, herriko hezkuntza eragileak inplikatzea, modu honetan, hezkuntza komunitatearen parte hartzea bultzatuz eta herriarentzat esanguratsua izango den bilakaera bat

bermatuz.

Contacto

soraluzehezkuntza@gmail.com

Fecha de última actualización del recurso

18/02/2019

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle Estación 11 20590 Soraluze/Placencia de las Armas Gipuzkoa Euskadi España

